



Ipurmasail aurkezpeneko erditzea

Kanpoko bertsio zefaliko

Haurdun dagoen emakumearentzako informazioa

IPURDIZ AURRERAKO AURKEZPENEA

Haurdunaldiaren bukaeran fetu gehienek burua kokaturik dute erditzeko kanalean. Kokapen horri zefaliko esaten zaio. Baina fetuen %4ek oinak edo ipurmasailak izaten ditu kokaleku horretan. Aurkezpen podalikoa eta ipurdiz aurrerakoa esaten zaie horiei.

Pelbisaren beheko aldearekin kontaktuan jartzen den fetuaren zonen arabera, aldaera batzuk daude.




ZER EGIN DEZAKEGU IPURDIZ AURRERAKO AURKEZPENAREN KASUAN?

Haurdunaldia **36. astera oraindik iritsi ez bada**, itxoin behar da, fetu gehienek aste horretatik aurrera hartzen baitute kokapen definitiboa umetokian.


Haurdunaldia **aste horretara iristean**, bi gauza dira garrantzitsu:

- Kanpo bertsioa egiteko posibilitatea aztertzea.
- Erditzeko bide bat –bagnala edo zesararen bidezkoa– hautatzeko baldintza klinikoak aztertzea, erabakitzeko bietatik zein den amarentzat eta fetuarentzat abantaila gehien dituen.

JARDUTEKO ESKEMA



KANPO BERTSIOA



Prozedura bat da, amaren sabelaldean eragindako maniobren bitartez fetua aurkezpen zefalikoan –buruz behera– kokatzeko (arrakasta-tasa % 60).

Abantaila nagusia zera da aurkezpen zefalikoarekin arrisku gutxiago daudela, bai baginaren bidezko erditzearen kasuan, bai zesarrea egin beharko balitz ere. Konplikazio-tasa txikia da (erditzea hastea, ur-zorroa haustea, hemorragia txikia eta oso kasu gutxitan zesarrea urgentea egitea).

Prozedura hau ospitaleko erditze gunean egiten da 37. astean. Maniobrek, orokorrean, ez dute 5 minutu baino gehiago iraungo. **Bukatzean fetuaren bihotz-maiztasuna zainduko da 30 minutuan.** Fetuaren bertsioaren arriskuak txikiagoak dira ipurdiz aurreko erditze edo zesarrearenak baino. Maniobrek eragindako mina eramangarria izaten da, gutxi irauten duelako.

BAGINA BIDEZKO ERDITZE-SAIATZEA

Ipurdiz aurrerako erditzean lehen ipurmasailak kanporatzen dira eta azkenik burua ateratzen da. Erditze zefaliko baino zailagoa da, haurtxoaren gorputza ez delako hain ondo egokitzen pelbisean zehar egin behar duen bidean. Hori dela-eta irizpideak zorrotzagoak dira ipurdiz aurreko erditzean zefaliko baino. Bagina bidezko erditzea saiatauta ere, baliteke sortzea dilatazioa bitartean edo egozketan zesarrea komenigarri egiten duten zirkunstantziak.

GOGORA EZAZU

- Haurdunaldiko azken garaira arte iritsi den fetu baten ipurdiz aurrerako erditze naturala erabaki zentzuzkoa da protokolo espezifiko (nori egin erabakitzeko eta erditzea artatzeko eta kontrolatzeko) duen ospitale batean.
- Erditze-mota honetan erabaki klinikoak banan-banan hartzen dira, haurtxoaren eta haurdun dagoen emakumearen egoera baloratu.
- Haurdunaren eta haurtxoaren segurtasuna bermatzeko, erditze-mota hau ebakuntza-gelan egin behar da, bertan bakarrik profesional sanitarioak egon daitezkeela.
- Informazio hau irakurritakoan zalantzarik sortuz gero edota edozein argibide jasotzeko, galdetu, lasai, medikuari.